

ELORRIO 2018

ELORRIARREK UDAL ZERBITZUEN ETA POLITIKEN
INGURUAN DITUZTEN BALORAZIOAK, HAUTEMATEAK ETA
IRITZIAK

-EBALUAZIO INKESTA-



2018ko azaroaren 9an

AURKIBIDEA

A. SARRERA	3
B. METODOLOGIA	4
C. EMAITZAK.....	5
1. EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK	5
2. EGOERA OROKORRAREN BALORAZIOA	10
3. UDALAREN BALORAZIOA	12
3.1. UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETA OROKORRA	13
3.2. UDAL GOBERNUAREN BALORAZIOA EZAUGARRIKA	14
4. UDALA ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMANA.....	15
4.1. UDALAREN KOMUNIKAZIOAREN INGURUKO ALDAGAI OROKORRAK	16
4.2. UDALAK KOMUNIKATZEKO ERABILTZEN DITUEN HAINBAT BIDEREN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA	17
5. UDAL KUDEAKETAREN BALORAZIOA	19
5.1. UDALAK EGINDAKOAREKIKO BALORAZIOA, ORO HAR	20
5.2. HAINBAT GAIK NORBERE BURUARENTZAT DUTEN GARRANTZIA MAILA	21
5.3. GAI HORIETAN UDALAK EGIN DUEN KUDEAKETAREN BALORAZIOA.....	22
5.4. HAINBAT GAIK DUTEN GARRANTZIA MAILA NORBERARENTZAT VS. UDALAK EGINDAKO KUDEAKETAREN BALORAZIOA	23
6. UDALEKO ZERBITZU ETA INSTALAZIOEN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA.....	24
6.1. UDALAK EMATEN DITUEN ZERBITZUEKIKO ASEBETETZE MAILA, ORO HAR	25
6.2. UDALAK EMATEN DITUEN ZERBITZU JAKIN BATZUEN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA.....	26
7. UDALAK AURRERA ERAMAN DITUEN PROIEKTUEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA	28
8. HURRENGO URTEKO AURREKONTUETARAKO LEHENTASUNAK.....	31
8.1. AURREKONTUETAN SARTU BEHARKO LIRATEKEEN PROIEKTUAK ETA GARRANTZIA MAILA NORBERARENTZAT	32
8.2. INBERTSIO HANDIETAKO LEHENTASUNAK	35

A. SARRERA

Jarraian datorrena Elorrioko Udalaren enkarguz egindako ikerketaren emaitza da, **Elorrioko udal politikak baloratzeko eta etorkizunerako lehenetasunak identifikatzeko**. Ikerketa hau 2018ko irailaren 25a eta urriaren 11 bitartean egindako inkesta baten bidez garatu da. Galdetegia Elorrioko Udaleko ordezkariekin adostua izan da.

Aurkezten den txostenak honako egiturari jarraitzen dio:

- Hasteko, ikerketa egiteko erabili den metodologia azaltzen da.
- Ondoren, inkestaren edukietan edota ikerketaren emaitzetan sartzen gara:
 - o Inkestatutako herritarren **aldagai soziodemografikoak** aurkezten dira.
 - o Herriko **egoera orokorraren inguruan** egiten duten balorazioa jasotzen da, hau da, Elorrioko identifikatzen diren arazo nagusiak.
 - o **Udal gobernuaren inguruko hainbat aldagai** aztertzen dira ondoren: Udal gobernuaren kudeaketa orokorrarekiko iritzia eta Udal gobernuaren balorazioa hainbat ezaugarriaren arabera.
 - o Laugarren lekuan, **udala eta herritarren arteko harremanari buruzko hainbat aldagai aztertu dira**: oro har herritarrak zein neurritan sentitzen diren informatuta, udalak zein neurritan hartzen dituela herritarren iritzia baloratzen den, eta komunikatzeko erabiltzen dituen bide batzuen inguruko ezagutza, erabilera eta balorazioa.
 - o Bosgarren lekuan, **udal kudeaketaz** galdetu da. Batetik, hainbat gairi herritarrek ematen dioten garrantzia maila eta udal kudeaketaren balorazioa alderatu dira. Bestetik, zerbitzu eta instalazio jakin batzuei buruz galdetu da: oro har zerbitzu eta instalazioekiko herritarrek duten asebetetze maila eta Udalak eskainitako zerbitzu zehatz batzuen inguruko balorazioa. Era berean, udalak azken urteetan aurrera eraman dituen proiektuei buruz zehazki galdetu dira, ezagutza eta balorazioa.
 - o Azkenik, **hurrengo urteko aurrekontuetarako lehenetasunei buruzko datuak** jaso dira. Batetik, hainbat proiekturen inguruan herritarren iritzia jaso da, ea aurrekontuetan sartu beharko litzatekeen edo ez eta norberarentzat proiektu horrek duen garrantzia maila. Modu berezitan galdetu da inbertsio handien inguruan, zein egingo zuketuen aukeratzeko eskatuta herritarrei.

Txostena amaitzeko, ondorio orokor batzuk aurkezten dira.

B. METODOLOGIA

ERABILITAKO TEKNIKA: Elorrioko herritarrei egindako inkesta egituratua.

UNIBERTSOA: Elorri bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak. Garai honetan, zehazki, adin horretako **6.018** lagun zeuden erroldatuta (populazio osoa: 7.307 pertsona).

LAGINA: **376** herritar.

LAGINKETA: Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan zedin, adina eta sexuaren arabeko kuotak erabili dira.

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi ziren gaien inguruko galderekin osatu dugu galdera-sorta, Udaleko ordezkariekin elkarlanean. Elkarrizketa batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egin direnez, bi galdera-sorta izan ditugu, hizkuntza bakoitzean bana.

LANDA-LANA: Inkestak 2018ko irailaren 25a eta urriaren 11 bitartean egin dira. Oro har, herritarren erantzuna ona izan da.

AKATS TARTEA: $\pm\%5,0$ lagin osoarentzat, **%95,5eko konfiantza mailan** eta $p=q=\%50,0$ denerako.

Inkesta egiteko erabili den metodologia multikanala izan da. Gizartea osatzen duten perfil desberdineko talde bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu eta, horren arabera, berengana iristeko metodologia egokienak ere aldatu egiten dira.

Hala, ikerketa honetako inkesta bi tekniken bidez egin da:

- **Inkesta telefonikoak** egin dira, bereziki 45 urtetik gorako herritarrei begira.
- **Etkez etxeko inkesta presentzialak** ere egin dira 45 urtetik beherako herritarrei begira.

Kronogramari dagokionez, telefono bidezko inkestak egin dira lehenengo, eta behin horiek amaiera aldera zeudela hasi da etkez etxeko landa lana. Horrek ahalbidetu du bigarren fasean artean osatzeko zeuden kuoten arabera orekatzea landa lana.

Guztira, 376 inkesta egin dira adierazitako daten artean. Ondoren, inkesta horiek sexua, adina eta euskara-gaitasunaren arabera haztatu dira.

Inkesten ustiaketari dagokionez, garrantzia-mailak eta balorazioak 0 eta 10 eskalan galdetzen direnean, balorazio-taldeak honela eraiki dira: balorazio txarra moduan hartu dira 0 eta 5 bitarteko puntuazioak, onak 6 eta 7 puntuak, eta balorazio oso ona kontsideratu da 8 eta 10 artekoa.

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: 18 urtetik gorako Elorrioko herritarrak (**6.018**)

Lagina: **376** herritar.

Landa-lana: 2018ko irailaren 25etik urriaren 11 bitarte. Inkestak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, inkestatuaren nahiaren arabera.

Akats tarte: $\pm\%5,0$ lagin osoarentzat, $\%95,5$ eko konfiantza mailan eta $p=q=\%50,0$ denerako.

C. EMAITZAK

1. EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Inkesta erantzun duten pertsonen artean %50,3 emakumezkoak dira, eta %12,7k 18-29 urte bitartean ditu, %23,9k 30 eta 44 urte bitartean, %37,1ek 45 eta 64 urte bitartean eta %26,2k 65etik gora¹. Ikasketa-mailari dagokionez, talderik handiena erdi-mailako ikasketak dituenak da (%37,4); %36k ikasketarik ez du edo oinarrizkoak ditu, eta goi-mailako ikasketak %26,6k ditu. Auzoei dagokienez, inkestatuen laurdena inguru Kasko Historikoan bizi da (%26,2) eta hurrengo talderik esanguratsuenak Nizeto Urklizun (%10), Arestiortun (%8,3), Goietan (%7,2) eta Anduetxeta/Lourdes Etorbidean (Las cuarenta) kokatzen da (%6,1).

Euskara-gaitasunari erreparatuta, ia hamarretik seik euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten duela dio (%56,8), eta beste %43,2tik gehienak "ulertu bai baina hitz egiten dutenak" dira (%27,3). Talderik txikiena "ez ulertu eta ez hitz egiten dutenak" dira (%15,9)².

Jatorriari dagokionez, inkestatuen %59,4 Elorrion jaioa da. Gurasoen jatorriarekin konbinatuta aldagai hori, inkestatua eta gurasoetako bat gutxienez Elorrion jaioak dira kasuen %41ean (horien baitan, hirurak herrian jaioak dira kasuen %17,9). Gurasoak herritik kanpokoak izan eta Elorrion jaiotako inkestatuek %17,7 osatzen dute, eta talderik handiena hirurak Elorriotik kanpo jaioak direnena da (%33,6).


¹Kontuan hartu behar da ezaugarri horiek haztatuta daudela; beraz, Elorrioko errealtatearekin bat egiteko moldatuta daude.

² Hizkuntza-gaitasuna ere haztatuta dago, "euskaldunak" eta "erdaldunak" kategoria orokorren arabera. "Erdaldunen" baitan sartu dira euskaraz ulertzen ez dutenak eta baita hitz egitea kostatzen zaienak ere; horrela egitearen arrazoia da "ez ulertu eta ez hitz egiten" duten pertsonen taldea txikiagia zela haztaketarako erabiltzeko.

Sexua


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Emakumezkoa	189	50,3
Gizonezkoa	187	49,7
Guztira	376	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."

**Adina**


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
18-29	48	12,7
30-44	90	23,9
45-64	139	37,1
65+	99	26,2
Guztira	376	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."

**Ikasketa maila**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ikasketarik ez edo oinarrizkoak	132	36,0
Erdi-mailako ikasketak	138	37,4
Goi-mailako ikasketak	98	26,6
Guztira	368	100,0


Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



Euskara gaitasuna

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	213	56,8
Ulertu bai, hitz egin nekez	103	27,3
Ez ulertu ez hitz egin	60	15,9
Guztira	376	100,0


Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



Hizkuntza gaitasuna

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Euskalduna	213	56,8
Erdalduna	162	43,2
Guztira	376	100,0


Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



Inkestatua eta gurasoen jatorri konbinazioak


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Inkestatua eta bi gurasoak Elorrion jaiok	67	17,9
Inkestatua eta guraso bat Elorrion jaiok	87	23,1
Inkestatua Elorrion jaiok, gurasoak Elorriotik kanpo	66	17,7
Inkestatua eta bi gurasoak Elorriotik kanpo jaiok	126	33,6
ED-EE	29	7,8
Guztira	376	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."




Inkestatuaren eta gurasoen jaiolekuak

	Inkestatua		Ama		Aita	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Elorrion jaioa	220	59,4	130	35,0	118	31,9
EHko beste lekuren batean jaioa	86	23,2	115	30,9	116	31,2
Espainiar estatuko beste leku batean jaioa	54	14,6	115	31,1	127	34,2
Espainiar estatutik kanpo jaioa	10	2,8	9	2,5	8	2,3
ED / EE	-	-	2	0,5	2	0,5
Guztira	371	100,0	371	100,0	371	100,0



Auzoa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Kasko Historikoa (Alde Zaharra)	98	26,2
Nizeto Urklizu	38	10,0
Arestiortu	31	8,3
Goieta	27	7,2
Anduetxeta/Lourdes etorbide (Las cuarenta)	23	6,1
Ibarra	18	4,8
Esteibarlanda	15	4,1
Urkizuaran	15	4,0
San Anton	13	3,4
Zenita	11	2,9
Gazeta	9	2,5
Labakua	9	2,4
Berio	8	2,2
Lekeriketa	6	1,6
Igurria	6	1,6
Aldape	6	1,5
Leaniz/leiz	5	1,3
San Fausto	5	1,3
Viviendas de Bizkaia	4	1,0
Berriozabaleta	3	0,7
Montorra/Montorroste	2	0,6
Gazteeta/Gaztañeta	2	0,5
Miota	2	0,5
San Agustin Etxebarria	2	0,4
Arabio/aramiño	1	0,2
Beste	10	2,7
ED-EE	7	1,9
Guztira	376	100,0



Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."

2. EGOERA OROKORRAREN BALORAZIOA

Elorriko arazo nagusia zein den galdetuta, nahiko banatuta daude iritzi guztiak. Aipatuenak "garraio publikoa" (%8,1), "lan merkatuari lotutako arazoak" (%7,7), "gazteriari lotutako arazoak" (%5) eta "aparkaleku falta" (%4,8) dira.

Bestelako aukeretan kokatu dira inkestatuen laurdenetik gora (%28,9), eta hamabostenak "ez dakit-erantzunik ez" aukera hautatu du (%15,3).

Zure ustez, zein da ELORRIOK duen arazo nagusia?


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Garraio publikoa	31	8,1
Lan merkatuari lotutako arazoak	29	7,7
Gazteriari lotutako gaiak	19	5,0
Aparkaleku falta	18	4,8
Azpiegitura publikoak eta hauen egoera	15	3,9
Etxebizitzari lotutako arazoak	15	3,9
Arazo ekonomikoak, krisia	14	3,8
Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna	13	3,5
Txakur kakak	12	3,3
Trafikoa	9	2,5
Ingurumenari lotutako gaiak	8	2,2
Adineko pertsonen arazoak	6	1,6
Hezkuntza	5	1,4
Euskararen egoera	4	1,1
Zerbitzu publikoen hedadura, laguntza sozialak...	3	0,8
Immigrazioari lotutako arazoak	3	0,8
Emakumeenganako indarkeria	2	0,6
Delinkuentzia eta segurtasun falta	2	0,4
Euskal Herriko gatazka eta ondorioak (biktimak, indarkeria mota ezberdinak, presoak...)	1	0,4
Beste	109	28,9
ED-EE	57	15,3
Guztira	376	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."

Zure ustez, zein da ELORRIOK duen arazo nagusiena? Besterik

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Herritarrentzako zerbitzuak	23	19,7
Hirigintza	20	17,1
Komertzioa	11	9,4
Kutsadura	6	5,1
Argiteria	6	5,1
Kirol instalazioak	7	6,0
Zaborrak	5	4,3
Ingurumena	1	0,9
Jaiak	1	0,9
Garraio publikoa	3	2,6
Aisialdia	2	1,7
Hizkuntza	1	0,9
Udala/politikoak	6	5,1
Bestelakoak denetarik	25	21,4
Guztira	92	78,6

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



3. UDALAREN BALORAZIOA

Udalari buruz duten iritziaz galdetuta, inkestaturen talderik handienak adierazten du "badakiela nola konpondu Elorrioko arazoak, baina denbora gehiago behar du" (%44). Ondoren, paretsu daude "Elorrioko arazoak konpontzen ari da" (%19,9) eta "ez daki nola konpondu Elorrioko arazoak" (%20,1) aukeratzen dutenen ehunekoak, bigarrenengoak zertxobait altuago. Lehen eta bigarren aukerak ikusita, esan daiteke elorriarren hamarretik zazpik ez duela Udal Gobernuarekiko iritzi negatiborik.

Ezaugarri jakin batzuen arabera balorazioa ere eskatu da jarraian. Oro har, nahiko erantzun antzekoak jaso dira: kasu guztietan "oso ondo" eta "nahiko ondo" balorazioetan kokatzen da inkestaturen %45,2 eta %58 artean. Emaitzen arteko desberdintasunik handiena erantzunik ematen ez duen taldearen bolumena da. Gainera, balorazio baxuena jasotzen duten aldagaiak eta "ez dakit - erantzunik ez" portzentaje altuena dutenak aldagai berak dira.

Zehazki aldagaietara sartuta³, "herritarren arazoekiko gertutasuna" da ondoen baloratzen dena (%58k balorazio positiboa: %11,6k oso ondo eta %46,4k nahiko ondo). Jarraian dator "zintzotasuna" (%56k balorazio positiboarekin: %9,6k oso ondo eta %46,4k nahiko ondo hautatuta). Erdibidean gelditzen da "lidergoa izateko gaitasuna", %47,8ko balorazio positiboarekin (%7,3k oso ondo eta %40,5ek nahiko ondo baloratuta). Azken lekuetan, berriz, "akordioak lortzeko gaitasuna" (%42,3ko balorazio positiboa, %6,1ek oso ondo eta %36,2k nahiko ondo baloratuta), eta "gestiorako gaitasuna" dira, azken honen kasuan %45,2ko balorazio positiboarekin (%4,7k oso ondo eta %40,5ek nahiko ondo baloratuta).


³ Taulan eta grafikoan indize orokor baten arabera daude antolatuta. Indizea Likert eskalan oinarritutako galdegaiak elkarren artean konparatu ahal izateko sortzen den balio bat da. Eskuratzeko erabilitako ariketa honakoa da: ("oso ondo"+"nahiko ondo"/2) - ("nahiko gaizki" / 2 + "oso gaizki").

3.1. UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETA OROKORRA

Ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto Udalari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Elorriko arazoak konpontzen ari da	75	19,9
Badaki nola konpondu Elorriko arazoak, baina denbora gehiago behar du	165	44,0
Ez daki nola konpondu Elorriko arazoak	75	20,1
ED/EE	60	16,0
Guztira	376	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritzia, 2018."




3.2. UDAL GOBERNUAREN BALORAZIOA EZAUGARRIKA

Udal Gobernuaren balorazioa ezaugarrika

	Herritarren arazoekiko gertutasuna		Zintzotasuna		Lidergoa izateko gaitasuna		Gestiorako gaitasuna		Akordioak lortzeko gaitasuna	
	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%
Oso ondo + nahiko ondo	218	58,0	210	56,0	180	47,8	170	45,2	159	42,3
Erdipurdi	59	15,6	45	11,9	65	17,2	61	16,3	62	16,5
Oso gaizki + nahiko gaziki	47	12,5	40	10,6	39	10,4	53	14,2	50	13,2
ED-EE	52	13,8	81	21,5	92	24,5	91	24,3	105	28,0
Guztira	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0
Kenketa	45,5		45,4		37,3		31,1		29,1	

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziaik, 2018."



4. UDALA ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMANA

Udalak egiten dituen gauzez zein neurritan sentitzen diren informatuta galdetuta, inkestatuen erdiek "oso" edo "nahiko" informatuta daudela adierazten dute (%52,3k; %6,9k "oso informatuta" eta %46,2k "nahiko"). Aldiz, "gutxi informatuta" edo "batere informatuta ez" daudela diotenak %32,1 dira.

Hamarretik ia seik (%59,6) uste du Udalak herritarren iritzia kontuan hartzen dituela: %6,9k "erabat kontuan hartzen dituela" baloratzen du eta beste erdiak baino gehiagok, %52,7k, "nahiko kontuan hartzen dituela". Bostenak "ez dituela kontuan hartzen" uste du (%20,7) eta "ez dituela batere kontuan hartzen" %9k uste du.

Udalak komunikaziorako erabiltzen dituen hainbat baliabideri buruz ere galdetu da. Galdetu diren zortzi bideen artean hiru ezagunenak, inkestatuen hiru laurdenetik gorak ezagutzen dituenak, honakoak dira: "prentsako oharra: Correo, Anboto..." (%87,1), "buzoneatzen diren eskuorriak" (%85,4) eta "Udaleko panel informatiboak" (%78,4). Azpimarratzekoa da aipatu diren bide guztiak ezagutzen dituztela inkestatuen erdiek baino gehiagok, bat izan ezik: "Elorrio Zabaltzen aplikazioa", inkestatuen %17,7k soilik adierazi baitu ezagutzen duela.

Erabilerari dagokionez, komunikatzeko bide ezagunenak direnen kasuan adierazi dute inkestatuek erabilerarik altuena: "prentsako oharra: Correo, Anboto..." ezagutzen dituztenen %79,9k esan du erabiltzen dituela, eta "buzoneatzen diren eskuorrien" kasuan %81,1 dira. Erabilera gehien duten aukerei erreparatuta, hirugarren lekuan Udalbarri aldizkaria gelditzen da, ezagutzen dutenen %74k baitu erabiltzen duela; alabaina, kontuan izan behar da %52,3k esan duela ezagutzen duela, seigarren postuan kokatzen duena. Erabilera gutxien duten bi baliabideak dira, era berean, gutxien ezagutzen direnak ere: "aurkezpen, bilera eta batzordeak" (%50,1eko ezagutza eta %42ko erabilera) eta "Elorrio Zabaltzen aplikazioa" (%17,7ko ezagutza eta %46,7ko erabilera). Edozein kasutan, azken honen kasuan aipatzekoa da ezagutzen dutenen artean duen erabileraren ehunekoa oso altua dela.


Komunikatzeko bide horiei ematen zaizkien balorazio guztiak, batez beste, 6,4 eta 7,3ko puntuazioen artean gelditzen dira. Ondoen baloratua da, aldi berean, ezagunena eta erabiliena dena: "prentsako oharra: Correo, Anboto..." (7,3). Jarraian datoz "arreta pertsonala (gutuna, bandoa, telefonoa...)" (7,1) eta "Udaleko panel informatiboak" (7). Beste muturrean, balorazio kaxkarrena jasotzen dutenak "Udalaren webgunea eta sare sozialak" (6,5) eta "Elorrio Zabaltzen aplikazioa" dira (6,4), nahiz eta oso desberdintasun txikiez ari garen. "Elorrio Zabaltzen"-en kasua deigarria da, hain justu, iritzi oso desberdinak daudela ikusten baita: balorazio ona ematen duten taldea handi samarra da (%41,6k 8 eta 10 bitarteko puntuazioa eman dio), baina, era berean, aplikazio honek jaso du kasu guztietatik balorazio txar ehunekorik handiena (%31,8). Hala ere, kontuan izan behar dugu balorazio horiek egitera 31 pertsona soilik iritsi direla.

4.1. UDALAREN KOMUNIKAZIOAREN INGURUKO ALDAGAI OROKORRAK

Orokorrean, Udalak egiten dituen gauzez zein neurritan informatuta zaudela sentitzen duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso informatuta + nahiko informatuta	191	52,3
Erdipurdi	57	15,6
Batere informatuta ez + gutxi informatuta	117	32,1
Guztira	366	100,0


Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



Eta, orokorrean, Udalak herritarren iritziak kontuan hartzen dituela esango zenuke?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Erabat kontuan hartzen ditu + nahiko kontuan hartzen ditu	224	59,6
Ez ditu batere kontuan hartzen + ez ditu oso kontuan hartzen	112	29,7
ED-EE	40	10,7
Guztira	376	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."




4.2. UDALAK KOMUNIKATZEKO ERABILTZEN DITUEN HAINBAT BIDEREN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA


Udalak komunikatzeko erabiltzen dituen hainbat bideren ezagutza, erabilera eta balorazioa

	EZAGUTU (%)		ERABILI (%)		BALORAZIOA			Batez bestekoa
	n	%	n	%	Balorazio oso ona (8-10)	Balorazio ona (6-7)	Balorazio txarra (0-5)	
Prentsako oharrak: Correo, Anboto...	327	87,1	262	79,9	45,0	46,3	8,7	7,3
Buzoneatzen diren eskuorriak	320	85,4	260	81,1	27,8	53,0	19,1	6,6
Udaleko panel informatiboak	293	78,1	184	62,5	39,7	47,5	12,7	7,0
Arreta pertsonala (gutuna, bandoa, telefonoa...)	256	68,2	140	68,5	43,6	41,5	14,8	7,1
Udalaren webgunea eta sare sozialak	233	61,9	127	67,5	27,0	49,8	23,2	6,5
Udalbarri	197	52,3	145	74,0	33,3	45,2	21,5	6,6
Aurkezpen, bilera eta batzordeak	188	50,1	79	42,0	28,9	52,1	19,1	6,6
Elorrio Zabaltzen aplikazioa	66	17,7	31	46,7	41,6	26,7	31,8	6,4

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



EZAGUTZA	Bai
	Ez
ERABILERA	Bai
	Ez



5. UDAL KUDEAKETAREN BALORAZIOA


Udalak egindako kudeaketa oro har 0tik 10erako eskalan baloratzeko eskatuta, inkestatuek batez beste 6,4ko balorazioa ematen diote. Ehunekoei erreparatuta inkestatuen erdiek 6 eta 7 puntuak aukeratu dituzte. Beste erdiaren kasuan, gehiago kokatzen dira 8 eta 10 bitarteko puntuetan (%26) 0 eta 5 bitartekoetan baino (%24,1).

5.1. UDALAK EGINDAKOAREKIKO BALORAZIOA, ORO HAR

Nola baloratzen duzun oro har Udalak egindakoa, 0tik 10erako eskala erabiliz.

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Balorazio oso ona (8-10)	94	26,0
Balorazio ona (6-7)	182	50,0
Balorazio txarra (0-5)	88	24,1
Guztira	364	100,0
Batezbestekoa	6,4	

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."




5.2. HAINBAT GAIK NORBERE BURUARENTZAT DUTEN GARRANTZIA MAILA

Hainbat gai norbere buruarentzat duten garrantzia maila

	Ingurumenaren zaintza		Kultura		Hirigintza eta irisgarritasuna		Berdintasun politika		Diru publikoaren gestioa		Eplegua eta jarduera ekonomikoaren sustapena		Jatorri aniztasuna eta elkarbitza		Adineko pertsonetikiko politika		Turismoa		Udalak bultzatutako parte hartzea	
	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%
Oso garrantzia handia + nahiko garrantzia handia	344	91,6	338	90,1	331	88,0	329	87,7	326	86,7	324	86,3	309	82,2	299	79,5	276	73,5	248	66,2
Ez txikia eta ez handia	12	3,2	17	4,4	21	5,5	14	3,8	12	3,1	12	3,2	24	6,4	23	6,1	51	13,5	44	11,8
Oso garrantzia txikia + nahiko garrantzia txikia	9	2,5	13	3,5	15	4,1	14	3,8	15	4,0	16	4,2	23	6,0	20	5,4	42	11,2	44	11,8
ED-EE	10	2,8	7	2,0	9	2,5	18	4,7	23	6,2	24	6,3	20	5,3	34	9,0	7	1,8	38	10,2
Guztira	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	374	100,0
Kenketa	89,1		86,6		83,9		83,8		82,7		82,1		76,2		74,2		62,3		54,4	

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."




5.3. GAI HORIETAN UDALAK EGIN DUEN KUDEAKETAREN BALORAZIOA

Gai horietan udalak egin duen kudeaketaren balorazioa

	Kultura		Berdintasun politika		Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza		Turismoa		Udalak bultzatutako parte-hartzea		Ingurumenaren zaintza		Diru publikoaren gestioa		Adineko pertsonetikiko politika		Hirigintza eta irisgarritasuna		Enplegua eta jarduera ekonomikoaren sustapena	
	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%
Oso ondo + nahiko ondo	274	73,0	247	65,6	231	61,5	242	64,3	213	56,8	179	47,6	160	42,7	155	41,2	175	46,7	103	27,4
Erdipurdi	40	10,8	33	8,9	46	12,2	42	11,3	53	14,2	64	17,2	55	14,5	43	11,4	76	20,3	72	19,1
Oso gaizki + nahiko gaizki	10	2,8	17	4,7	17	4,6	29	7,7	33	8,7	55	14,6	36	9,7	38	10,1	67	17,9	72	19,2
ED-EE	51	13,5	78	20,8	82	21,7	63	16,7	77	20,4	77	20,6	124	33,1	140	37,2	57	15,1	129	34,3
Guztira	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0	376	100,0
Kenketa	70,2		61,0		56,9		56,6		48,1		33,0		33,0		31,0		28,7		8,2	

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."




5.4. HAINBAT GAIK DUTEN GARRANTZIA MAILA NORBERARENTZAT VS. UDALAK EGINDAKO KUDEAKETAREN BALORAZIOA

Hainbat gai duten garrantzia maila norberarentzat VS. Udalak egindako kudeaketaren balorazioa

	Udalak bultzatutako parte hartzea	Turismoa	Kultura	Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza	Berdintasun politika	Adineko pertsonetikiko politika	Diru publikoaren gestioa	Hirigintza eta irisgarritasuna	Ingurumenaren zaintza	Enplegua eta jarduera ekonomikoaren sustapena
Garrantzia handia % ("oso handia" + "nahiko handia")	66,2	73,5	90,1	82,2	87,7	79,5	86,7	88,0	91,6	86,3
Balorazio ona % ("oso ondo" + "nahiko ondo")	56,8	64,3	73,0	61,5	65,6	41,2	42,7	46,7	47,6	27,4

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



6. UDALEKO ZERBITZU ETA INSTALAZIOEN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA

Udalak ematen dituen zerbitzuekin dagoen asebetetzeaz galdetuta, oro har, inkestatuen ia hiru laurdenek gustura daudela adierazten dute (%73,1ek, %11,3k oso gustura eta %61,8k nahiko gustura). Beste aldean, "ez oso gustura" edo "batere gustura ez" adierazi dutenak %10 dira.

Era berean, zerbitzu jakin batzuen inguruko datu batzuk galdetu dira: ezagutza, erabilera (bai/ez eta maiztasuna) eta balorazioa⁴. Zebitzu guztiak dira oso ezagunak, inkestatuen hamarretik zortzik baino gehiagok ezagutzen baititu guztiak. Horren baitan, ezagunenak Arriola antzokia, kiroldegia eta Iturri Kultur Etxea dira, hamarretik bederatzik baino gehiagok ezagutzen baitituzte. Ezagutzen dituzten pertsonen artean, erabilienak ere Arriola antzokia eta Iturri Kultur etxea bera dira: ezagutzen dutenetatik %72,2k erabiltzen du lehenengoa eta %59,8k bigarrena. Gutxien erabiltzen dena Aldatzekua (jubilatuen etxea) da galdegindako guztien kasuan (ezagutzen duten %84,2 horien artean %23,8k erabiltzen du).

Erabiltzen duten horien artean, maiztasunik handienarekin erabiltzen direnak kiroldegia eta Aldatzekua (jubilatuen etxea) dira, %45,6k eta %43,1ek erabili baitituzte azken asteen. Aldiz, azken hilean erabili ez diren instalazioei begiratuta, Arriola antzokia eta Iturri Kultur Etxea nabarmentzen dira, lehenengoa ez baitute erantzun dutenen %56,9k erabili azken hilean eta bigarrena %49,8k.

Instalazio bakoitza erabiltzen duten pertsonen bere inguruko balorazioa eskatu zaie, 0 eta 10 bitarteko eskala batean. Batez bestekoen artean desberdintasunak ageri dira: altuenek 7,9ko puntuazioa jasotzen dute eta baxuenak, aldiz, 6,2koa.


⁴ Lehengo kasuan bezala, galdera bakoitza aurreko galdegaiari baiezkoa erantzun dietenei soilik galdetu zaie.

6.1. UDALAK EMATEN DITUEN ZERBITZUEKIKO ASEBETETZE MAILA, ORO HAR

Orokorrean, gustura zaude udalak ematen dituen zerbitzuekin?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso gustura + nahiko gustura	270	73,1
Erdipurdi	62	16,8
Batere gustura ez + nahiko gustura	37	10,0
Guztira	369	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."





6.2. UDALAK EMATEN DITUEN ZERBITZU JAKIN BATZUEN EZAGUTZA, ERABILERA ETA BALORAZIOA


Udalak ematen dituen zerbitzu jakin batzuen ezagutza, erabilera eta balorazioa

	EZAGUTU		ERABILI		ERABILERAREN MAIZTASUNA				BALORAZIOA			
	n	%	n	%	Atzo	Azken astean	Azken hilean	Azken hilean ez	Balorazio oso ona (8-10)	Balorazio ona (6-7)	Balorazio txarra (0-5)	Batez bestekoa
Arriola antzokia	355	94,5	256	72,2	2,0	15,1	26,0	56,9	67,8	27,3	4,9	7,9
Kiroldegia	352	93,7	166	47,2	18,9	26,7	17,8	36,6	29,8	38,3	31,9	6,2
Iturri Kultur Etxea	349	92,9	209	59,8	3,9	19,2	27,1	49,8	60,7	36,2	3,1	7,7
Aldatzekua (Jubilatuena etxea)	317	84,2	75	23,8	12,2	30,8	20,9	36,0	70,7	19,4	9,9	7,9
Bestelako kirol instalazioak. (Kirol etxea, Kanpoko igerilekuak, elizalde...)	307	81,6	130	42,5	6,2	12,4	46,2	35,3	43,0	46,5	10,4	7,2

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



EZAGUTZA	Bai
	Ez
ERABILERA	Bai
	Ez



7. UDALAK AURRERA ERAMAN DITUEN PROIEKTUEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Udalak azken urteetan garatu dituen bost proiektuen ezagutza eta balorazioa ere jaso da. Aipatu diren proiektuak, oro har, inkestatuen erditsuek ezagutzen dituzte: "Toloto errekaeren berbideraketa eta Errebonbilo kaleko urbanizazio proiektua" %55,5ek, "memoria historikoan egiten ari den lanketa" %51,6k eta "ingurumenean egin direnak (aire kalitate azterketak, herriko fundizioekin egin den lanketa" %43,1ek. Bi kasu desberdintzen dira, bata ezagutza altuarengatik eta bestea baxuarengatik: "irisgarritasuna hobetzeko egin diren lanak (Haurreskola-musika eskola- eskola ingurua- Belengua kalea, Ibarra kalea...)" ia hamarretik zortzik adierazten du ezagutzen dituela (%79,1ek) eta, aldiz, gutxien ezagutzen dena (%16,6) "12-16 bitarteko nerabeentzat egin den lanketa (gazte diagnostiko eta plana, gazte teknikari lanpostua sortu, gazteentzat espazio bat ireki)" izan da.

Balorazioetara pasata, desberdintasunak ikusten dira proiektuen arabera. Batezbestekorik altuena "irisgarritasuna hobetzeko egin diren lanek" jasotzen dute (7,4ko batez bestekoa). Horrela, galdetu diren elementuetatik ezagunena eta ondoen baloratua da.


Jarraian datoz, 7,2ko batezbestekoarekin, "memoria historikoan egiten ari den lanketa" eta "12-16 bitarteko nerabeentzat egin den lanketa". Hala ere, balorazioa egin duten taldeak desberdinak dira kopuruz: hain justu, memoria historikoan egiten ari den lanketa inkestatuen erditik gorak ezagutzen –eta beraz, baloratzen- dute, eta aldiz, gazteen inguruko lanketa %16,6k; horrez gain, bigarren aldagai hori baloratzerakoan "ez dakit – erantzunik ez" aukeratzen duen taldea zertxobait handiagoa da (%19,3, aurrekoan %16,1 denean).

Baloraziorik baxuenak "ingurumenean egin direnak" eta "Toloto errekaeren berbideraketa eta Errebonbilo kaleko urbanizazio proiektua" dira (6 eta 6,6ko batezbestekoekin). Hala eta guztiz ere, kontuan izatekoa da proiektu guztiek 6tik gorako puntuazioa lortzen dutela.


Udalak aurrera eraman dituen proiektu batzuen ezagutza eta balorazioa

	EZAGUTU		BALORAZIOA				
	n	%	Balorazio oso ona (8-10)	Balorazio ona (6-7)	Balorazio txarra (0-5)	ED-EE	Batez bestekoa
Irisgarritasuna hobetzeko egin diren lanak (Haureskola-musika Eskola-eskola ingurua, Belengua kalea, Ibarra kalea...)	297	79,1	46,1	37,4	9,5	6,9	7,4
Toloto erreken berbideraketa eta Errebonbilo kaleko urbanizazio proiektua	209	55,5	26,6	27,9	18,0	27,4	6,6
Memoria historikoan egiten ari den lanketa	194	51,6	38,2	40,2	6,4	15,2	7,2
Ingurumenean egin direnak (Aire kalitate azterketak, herriko fundizioekin egin den lanketa)	162	43,1	24,9	29,8	29,2	16,1	6,0
12-16 bitarteko nerabeentzat egin den lanketa. (Gazte diagnostiko eta plana, gazte teknikari lanpostua sortu, gazteentzat espazio bat ireki)	63	16,6	47,6	19,3	13,8	19,3	7,2

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



EZAGUTZA	Bai
	Ez



8. HURRENGO URTEKO AURREKONTUETARAKO LEHENTASUNAK

Inkesta amaitzeko, hurrengo urteko aurrekontuetarako lehentasunei buruz galdetu da. Hasteko, hainbat proiekturen inguruan galdetu zaie inkestatuei ea hurrengo urteko aurrekontuetan kontenplatu beharko litzatekeen edo ez beren ustez eta zein garrantzia maila duten proiektu horiek berentzat. Oro har, esan daiteke lotuta daudela proiektuei aitortzen zaien garrantzia maila eta aurrekontuetan sartu beharko litzatekeelako ustea.

Hala, inkestatuen %84,4k uste du "eskolan eta patioan konponketa eta txukuntze lanak" egin beharko liratekeela, eta hiru laurdenek diote garrantzitsua dela berentzat (%74,7 "nahiko" eta "oso" gehituta). Bigarren lekuan "mugikortasun plana garatu" dator, %77,4k uste baitu sartu beharko litzatekeela aurrekontuetan eta %63,5ek aitortzen dio garrantzia oso edo nahiko handia. Hirugarren "San Agustin inguruko paseoa konpontzea" dago, %72,4ren ustez kontenplatu beharko litzatekeena aurrekontuetan eta %51,7rentzat duena nahiko garrantzia. Azken lekuan gelditzen diren bi proiektuak dira "Aldapebeitia eraikina eraberritzeko lehen urratsak ematea", %68,3k uste baitu sartu beharko litzatekeela aurrekontuetan eta erditik beherentzat baita garrantzitsua (%46,6k), eta "Argiñetako proiektu museografikoa garatzea", %64,1entzat baita aurrekontuetan sartzekoa eta %44rentzat du garrantzia.

Planteatutako gaiez gain, inkestatuen %30,3k bestelako elementu batzuk aipatu dituzte hurrengo urteko aurrekontuetarako sartzeko. Horien artean, elementurik aipatuena honakoak izan dira: irisgarritasuna hobetzearekin lotutako gaiak (%17,9), gazteekin lotutakoak (%17), kirolaren ingurukoak (%11,6) eta gizarte zerbitzuen alorrekin lotutakoak (%10,7).

Horrez gain, beste galdera bat egin da inbertsio handietako lehentasunak markatzeko. Kasu honetan, aukeran ematen ziren sei erantzunetatik bakarra hautatu zitekeen (planteatzen ziren bost proiektuetatik bat, beste aukera bat edo bat ere ez). Nahiko iritzi banatuak agertu dira galdera honen inguruan; nahiz eta lehenengo aukeratik hurrengoetara tarte egon, aukera bat bera ere ez da bereziki nabarmentzen, eta guztiek jasotzen dute babes neurri handiagoan edo txikiagoan.

Inbertsio handien artean, babes gehien jaso duena "FYTASA enpresa izandakoa erosi eta ingurua eraberritzea" izan da, %27,5ek horixe aukeratu baitu. Jarraian, elkarrengandik oso gertu, "kirol instalazio berriak egin" (%19) eta "urbanizazio lanak egin" (%17,8) gelditu dira. Urbanizazio lanak aipatu dituztenei zehazki galdetu zaie zeintzuk dituzten buruan: "San Pio kalea" (%24,6k) eta "Anduetxeta eta Lourdes etorbide barnealdeko urbanizazioa" (%13,7) izan dira aipatuena, eta "besterik" aukeran kokatu eta modu irekian erantzun dutenen kasuan, modu orokorrean hitz egin da, kale zehatz bat aipatu gabe. Proposatzen ziren inbertsio guztien artean babes txikiena jaso duena "Aldapebeitia jauregiari erabilera eman" izan da (%11,8k). Inbertsio horietatik bat ere ez egitearen alde egin du %7,5ek, eta beste %8,8k bestelako proposamenak egin ditu, hots, 31 pertsonak. Horien artean, 11 pertsonak irisgarritasunarekin eta kale konponketekin lotutako proposamenak helarazi dituzte, eta bestelako ideiak honakoak izan dira: herritarrei edota enpesei bideratutako laguntzak sustatzea (5 kasu), kirol eremuko proposamenak (4 kasu), Aldapebeitian egiteko hainbat aldaketa (3) eta kutsadura edo zaborrekin lotutako gaiak (2).

Amaitzeko, modu irekian galdetu zaie inkestatuei ea bestelako proposamen edo premiarik identifikatuta duten Elorrion. 128 pertsonak erantzun diote galdera honi, eta erantzunetan gehien errepikatu den gaia "irisgarritasuna edo kaleak konpontzea" izan da (%28,1ek, 36 pertsonak). Jarraian datoz ingurumena edo kutsadurarekin lotutako gaiak (%13,3k aipatuta, 17 pertsonak), eta hiru eta laugarren lekuetan, aipamen kopuru berekin, kirola eta gazteria (%8,6k aipatuta, 11 pertsonak).


8.1. AURREKONTUETAN SARTU BEHARKO LIRATEKEEN PROIEKTUAK ETA GARRANTZIA MAILA NORBERARENTZAT

Aurrekontuetan sartu beharko liratekeen proiektuak eta garrantzia maila norberarentzat


		Eskolan eta patioan konponketa eta txukuntze lanak egin		Mugikortasun plana garatu (Seinalitika, bizikleta plana garatu...)		San Agustin inguruko paseoa konpondu		Aldapebeitia eraikina eraberritzeko lehen urratsak eman - aurrekontuetan		Argiñetako proiektu museografikoa garatu		Besterik	
		n	%	n	%	n	%	n	%	n	%	n	%
AURREKONTUETAN	Bai	316	84,4	289	77,4	271	72,4	256	68,3	240	64,1	113	30,3
	Ez	58	15,6	85	22,6	103	27,6	119	31,7	134	35,9	260	69,7
GARRANTZIA MAILA	Oso garrantzia handia + nahiko garrantzia handia	280	74,7	237	63,5	193	51,7	175	46,6	164	44,0	98	26,3
	Erdipurdi	4	1,1	21	5,7	33	8,8	37	10,0	35	9,3	-	-
	Oso garrantzia txikia + nahiko garrantzia txikia	47	12,6	70	18,9	104	27,9	84	22,5	116	30,9	22	5,8
	ED-EE	44	11,6	45	12,0	43	11,6	79	20,9	59	15,8	254	67,8
	Oinarria	375	100,0	374	100,0	374	100,0	375	100,0	374	100,0	374	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."

AURREKONTUETAN




GARRANTZIA MAILA



G15. Datorren urteko aurrekontuetarako proiektuak. Besterik.

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Irisgarritasuna hobetu	20	17,9
Gazteak	19	17,0
Kirola	13	11,6
Gizarte zerbitzuak	12	10,7
Garbiketa/zaborrak	11	9,8
Planteatutako proiektuak egin, amaitu	9	8,0
Trafikoa	7	6,3
Kutsadura	5	4,5
Herritarrentzako zerbitzuak sustatu	4	3,6
Ingurumena	2	1,8
Hezkuntza	2	1,8
Kultura	2	1,8
Industria	2	1,8
Bestelakoak	4	3,6
Guztira	112	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."




8.2. INBERTSIO HANDIETAKO LEHENTASUNAK

Inbertsio handiei dagokionez, jakinda baliabideak mugatuak direla eta udala zorpetu beharko litzatekeela, honakoetatik zein proiekturi emango zenioke lehentasuna?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
FYTASA enpresa izandakoa erosi eta ingurua eraberritu	102	27,5
Kirol instalazio berriak egin	71	19,0
Urbanizazio lanak egin	66	17,8
Aldapebeitia jauregiari erabilera eman	44	11,8
Besterik	33	8,8
Bat ere ez	28	7,5
ED/EE	28	7,6
Guztira	372	100,0


Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



G16. Inbertsio handiei dagokionez, jakinda baliabideak mugatuak direla eta udala zorpetu beharko litzatekeela, honakoetatik zein proiekturi emango zenioke lehentasuna? Bestelakoak

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Irisingarritasuna/kaleen konponketa	11	35,5
Herritarrei/enpresei laguntzak	5	16,1
Kirola	4	12,9
Aldapabeitian aldaketak	3	9,7
Kutsadura/zaborrak	2	6,5
Beste	6	19,4
Guztira	31	100,0


Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



G17. (Urbanizazio lanak esan dutenei) Honakoetatik zein zehazki?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
San Pio kalea	16	24,6
Anduetxeta eta Lourdes etorbide barnealdeko urbanizazioa	9	13,7
Viviendas de Bizkaia	6	9,7
Ibarra	6	8,4
Errebonbillo kalea	4	6,3
Besterik	17	25,0
ED/EE	8	12,4
Guztira	66	100,0


Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



G17. (Urbanizazio lanak esan dutenei) Honakoetatik zein zehazki? - Besterik.

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Orokorrean	9	56,3
Andutxeta	1	6,3
Gazeta	1	6,3
Ibaikua	1	6,3
Berio Otxoa sarrera	1	6,3
San Fausto	1	6,3
Toloto	1	6,3
Txanberi	1	6,3
Guztira	16	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."



G18. Bestelako proposamen edo premiarik identifikatuta duzu Elorrion?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Irisgarritasuna/kaleak konpondu	36	28,1
Ingurumena/Kutsadura	17	13,3
Kirola	11	8,6
Gazteak	11	8,6
Diru laguntzak	9	7,0
Garraioa	6	4,7
Bidegorria	6	4,7
Zentro publikoen ordutegiak zabaldu	5	3,9
Auzoen eraberritzea	4	3,1
Etxebizitza	4	3,1
FYTASA	3	2,3
Udal taldeak	3	2,3
Hezkuntza	3	2,3
Komertzioa	3	2,3
Beste	7	5,5
Guztira	128	100,0

Iturria: Aztiker, "Elorriarrek udal zerbitzuen eta politiken inguruan dituzten balorazioak, hautemateak eta iritziak, 2018."

